

Emakumeen Indarra

Nori Unibertsitateko ikasleei.
zuzenduta

Denbora 2 ordu Materiala Sorginlore Gizarte Elkarreak garatutako komikiak (orri-markatzaileak)

Helburuak	Konpetentziak
<ul style="list-style-type: none">Eguneroko komunikazioan islatzen den iruditegi sexista antzemateko, kuestionatzeko eta eraldatzeko gaitasunak indartu.	<ul style="list-style-type: none">Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentziak:<ul style="list-style-type: none">Arazoak konpondu: erronkak identifikatzeko, informazio esanguratsua antzemareko, eta eraldaketarako proposamenak sortzeko gaitasunak.Bizikidetzarako konpetentziak:<ul style="list-style-type: none">Tokiko eta maila globaleko erantzunkizun sozialeko jokabidea eta ekitatearekin konpromezua.Ahoz eta ez-ahozko komunikaziorako eta komunikazio digitaleko konpetentziak:<ul style="list-style-type: none">Komunikazio hegemonikoa eta emakumeen diskriminazioan duen eragina zalantzan jartzeko gaitasuna.Eguneroko pertsonen arteko komunikazioa eraldatzeko jarrera aktiboa hartu.Izaten ikasteko konpetentziak:<ul style="list-style-type: none">Autoezagutza: bakoitzaren praktikak eta beren eraginaren inguruko gogoeta.Autobaieztapena: emakumeen indarrean eta aniztasunean oinarritzen diren irudi eta jokabide aukera ez hegemonikoak sortu.

Ekintzak

- Komikien inguruko hausnarketa talde misto txikitan (4-5 pertsona): talde bakoitzari 3 orri-markatzaile emango zaizkie; gorputzen aniztasunari, erreferenteei eta erabakitzeke eta hautatzeko eskubideari buruzkoak.
 - Zer gertatzen da eszenan?
 - Zer irudi ematen da emakumeei buruz?
 - Antzeko egoerak bizi izan dituzu?
 - Jorrotutako gaiari buruzko zure bizipena edota iritzia aldatu egin da? Aldaketarik egon bada, zerk eragin du?
- Aurkezpena eta debatea: talde bakoitzak bere hausnarketak aurkezten ditu. Debatea.
- Alternatiben zirkulua:
 - Zertan datza, beren ustetan, emakumeen indarra? Zer indar mota daude?
 - Zer egin dezakegu emakumeen inguruko iruditegia, eta zehazki beren indarraren ingurukoa, eraldatzeko?
 - Zer egiteko konpromezua hartzen dugu?

Metodologia

- Partaidetza esanguratsua.
- Komunikazio ez bortitza.
- Entzumen aktiboa .
- Konfidantzazko gune zurrak sortu.

Ebaluazio adierazleak

- Ikasleek pertsonen arteko komunikazioan irudi sexistak identifikatu gai dira.
- Ikasleek emakumeen inguruko iruditegi kolektiboa kuestionatzen dute.
- Ikasleek banakako eta taldeko indar era ahalduntzaile eta ez hegemonikoak identifikatzen dituzte.
- Ikasleek unibertsitatean komunikazio ez sexista erabiltzen dute.



Komikiak



Linka: [Ahalduntzea](#)



Linka: [Erreferenteak](#)



Linkak: [Aniztasuna](#)

